

# **BALIO PROPOSAMENA.**

Guk sortuko dugun aterkia nobedade bat izango da; orain arteko aterki guztiek marka bat izan dutelako eta gure produktu honek ez du markarik. Marka ez izateaz gain inoiz ikusi gabeko produktu bat da eta horrek arrakasta emango digu. Arrakastaren puntu nagusia erosotasuna izango da.

Aterkia oso eroso da kalean zehar lasai eta eskuak libre ibiltzeko. Euskal Herrian ohikoa da euria egitea eta euria ari duen egunetan askoren egunerokoa mugatu egiten da. Batzuk kalean oinez ibiltzeko arazoak dituzte eta beste batzuk berriz, erosketak egiterako garaian poltsak eta eskuan aterkia eramateko arazoak. Euria ari ez duenean ere eraman daiteke; aterkia bildu egiten da eta bildutakoan oso leku gutxi behar du. Egunerokoan poltsa eramaten dutenek bertan sartzeko aukera dute, ikasleek aldiz, euren motxiletan eramateko aukera izango dute eta eskuan eramateko ere eroso da. Aterkiarekin batera bustitzen ez duen beste poltsa bat ere oparituko da, betiere, aterkia erosi beharra dago poltsa hori lortu ahal izateko.

Produktua edonorentzat da eta hori kontuan izanik gure bezero guztiek ez dituzte zaletasun eta gusto berak izango. Honi jarraituz, aterkiek normalean izaten dituzten kolore arruntez gain eurek nahi duten diseinua egiteko aukera izango dute. Produktuen diseinu pertsonalizatua bi eratara egingo dugu; bezeroak berak bere marrazkia ekartzeko aukera izango du eta gure diseinatzaileak onartzen badu aurrera. Baina guk ere izango dugu gure diseinatzailea eta dendan eta web orrian guk sortutako diseinuak egongo dira bezeroen eskura.

Gaur egungo ekonomiari begiraruta esan dezakegu jende gehienak ez dituela horrelako gauzak 'kapritxo' erosten normalean beharrarengatik erosten dituzte. Orduan, prezioari begiratzean, kontuan hartu beharra dago diseinu pertsonalizatua duela eta produktu berri bat dela. Aterkiek bi prezio izango dituzte diseinatutakoak garestiagoak izango dira eta kolore arruntak dituztenak berriz, merkeagoak. Beste aterkiekin alderatuta garestiak dira baina esan beharra dago aterki honek eskaintzen duena ez dutela beste aterkiek eskaintzen.

Berriak gara baina gure produktua edozeinentzako eskuragarri egongo da. Denda bat izango dugu Zumarragan. Dendarekin bakarrik oso mugatuak gaudenez web orri bat ere irekiko dugu. Bertan gure dendaren helbidea eta produktuen katalogo zabala egongo da. Hortaz gain produktuak on-line erosteko aukera ere egongo da. Web orrira sartuko diren gehienak produktuaren bila ibiliko direnak direla kontuan izanik eta gaur egun sare sozialak oso modan daudenez facebooken ere kontu bat irekiko

dugu. Bertan gure produktuaren diseinu berriak argitaratuko ditugu eta bezeroak gure web-a bisitatzera gonbidatuko ditugu.

Produktua garestia den arren gure inguruak asko eskertuko du onen presentzia; batzuen bizitza guztiz aldatuko delako. Ezinduen kasuan adibidez, bai euria egin bai ateri egon kanean lasai ibiltzeko aukera izango du. Orain arteko aterki arruntekin aldiz, ezingo dute kalera atera eta horregatik ziurtatuta dugu bezero mota bat.

HATI-HATI. URRETXU-ZUMARRAGA IKASTOLA.